

MOBBING: ANTZINAKO EZEZAGUNA

Mobbinga, edo laneko jazarpen morala indarrez sartu da gizarte eta lanaren alorrean, eszenategi horren ezaugarri diren faktore guztia lagun duela. Horrek areagotu egiten du berez, bere kontzeptu hutsean, oso larria den gertaeraren norainokoa. Agertze hori, baina, gizarteak arazo latz eta zabala, gaurdaino ezezagunak ziren irispen eta konplexutasun-adarrak dituen bereganatzearen eta gain duela jabetzearen hasiera besterik ez da. Ezezagunak izanagatik ere, ez dira berriak, lanaren banaketaren jatorrian bertan aurki daiteke-eta, akaso, beraren etiologia, eta balitekeelako lanaren banaketaren eboluzioarekin batera eboluzionatu izana.

Mobbinga arazo gisa ikusteak, kontzeptu gisa eraikitzeak errealitatea sako-nago ezagutzera eramango gaitu eta lehendabiziko urratsa izango da laneko ezbe-harrak, depresioak, absentismoa, produktibitatearen murrizketa, osasun-arazoak, familia-bizitzan azal daitezkeen zenbait arazo eta beste hainbat problema gerta-tzen direneko egoeren sortzaile dela jabeturik, bizitza —eta ez dihardut laneko bizitza hutsari buruz— atsegingarriagoa lortzeko oinarriak jartzeari ekingo diogu. Bide hori urratzea eskubide ez ezik, eginbehar ere badugu. *Mobbinga* aztertzean sakontzea, gizalanak dituen alderdietan ilunenetako batean murgiltzea da baina, aldi berean, beste lurralde batzuk azalaraziko ditugu —kontzeptuei dagokienean lurralde berriak direnak— eta horrelakoetan, berebiziko garrantzia bereganatuko du gizarte-eragile guztien ekintzak.

Zeregin honetan murgildurik, ondoren datozen orrialdeetan ahalegina egin da arazoa ikusteko eta erakusteko, eta deia luzatu nahi zaie gizarte-eragileei alor honetan modu erabakigarri batean jardun dezaten, adierazpenak eginez arazoari nola aurre egin dakioken jakin dezaten. Horri eskaini diogu LAN-HARRE-MANAK argitalpenaren ale hau: etorkizuna eraikitzeko eta, ia guztietan errealitatearen gaineko ezagutzarik ezetik sortzen diren toki komunak eta apriorismoak desegiteko bide gisa, ezagutza aberasten saiatu. Egin ahal dugu ekarpenen bat zentzu honetan!

Ale honen jatorrian Hirigoyen Elkartearen eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko *Mobbingari* aurkako Foroaren lankidetz-eskaria dago. Eskerrak eman nahi dizkiegu lankidetz hori gauzatzeko guregana

jo dutelako. Eta eskerrak eman nahi dizkiogu, bereziki, LAN-HARREMANAK argitalpenaren Zuzendaritzatik, edukiak diseinatzeko lan guztiez, idazleekiko harremanez, proben zuzenketez eta ale honi, bere izaera propioa izan dezan, egin beharreko guztiez arduratu izan den Macu Álvarez. Ale honek dituen aberastasuna eta balioa, proiektua burutzeko tenorean erakutsi dituen kemenari, adonari eta lan bikainari zor zaizkio neurri handi batean. Zorretan gaude, baita ere, ale honi, eskuzabaltasunez, balio handiko ekarpenak eginez, LAN-HARREMANAK argitalpenaren bidea aberastu duten idazleei. Den-denei, eta orrialde hauek irakurriko dituzuenei, gure agurrik adeitsuena.

JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA
LAN-HARREMANAKen zuzendaria
Lan-Harremanak U.E.ren Zuzendaria
UPV/EHU